# Ibarbi Sagarraren Ibilbidea



**SL-Gi 48**

3,5 km · 1 h 15´




## Hernio eta mitologia / Hernio y la mitología



### Hernioko mendigunea eta artzaintza / El macizo Hernio y el pastoreo

**Hernioko mendigunearen zatirik handiena Errezilgo udalerrikoa da. Hala, Gazumeko (1013 m) tontorra osorik eta Herniokoa (1072 m) zatirik handienean errezildarrak dira.**

**Bertako goi larreetan artzain ugari ibili izan da, eta gaur egun ere badabiltza hainbat.**

La mayor parte del macizo de Hernio pertenece a Errezil. En sus prados siempre ha habido muchos pastores, y aún hoy en día, sigue alguno.




**Zelatungo pasabidea** / Corredor de Zelatun

**Horrez gain, Aralartik kostarako transhumantzia-bidean nahiz bestelako merkatari-bideetan nahitaezko pasabidea izan zen bi tontor horien arteko Zelatungo pasabidea.**

Asi mismo, Zelatun ha sido siempre transito imprescindible del camino de trashumancia entre Aralar y la costa.

# Hernioko erromeria eta sinesmenak
## Las romerías y creencias de Hernio



Iraileko igande guztietan Gipuzkoa osoko makina bat erromes-mendizalek Zelatungo mendi-leporainoko bidea igotzen du, handik Hernioko tontorrera (1075 m.) abiatzeko. Haitz bizian landutako bide ikusgarrian gora egiten dute, gurutze-bideraino, eta handik tontor gurutzez betera ondoren.

Todos los domingos de septiembre Hernio y Zelatun se llenan de montañeros y montañeras para disfrutar de populares romerías.

*Igandero*
***Iraila / Sep***
***Todos los domingos***

***Zelatungo Erromeriak***
*Romerias en Zelatun*



Gurutze-bideko lehengo gurutzean burdinazko uztai batzuk daude. Uztai horiek gorputz guztitik pasatzeko ohitura dago, erreumaren ajeak sendatzeko.

Durante el recorrido a la cima se encuentran unas argollas de hierro que, según cuentan, curan los males de reuma tras pasarlas por el cuerpo.



Azkenean, denak, Zelatungo borden inguruan elkartzen dira. Trikitixa-hotsa, eta jan-edanik falta ez, eta erromeria ederra izaten da han.

## Esaldiak

*"Sagardoa eateko, Garai txarrik ez / Sagardoa edateko, Garai txarrik ez"*

*"Saar arbolak loratzen haste ianian, ganbako saarrak ustedu / Sagar arbolak loratzen hasten direnenan, ganbarako sagarrak usteldu"*

*"Zaarrak sasti ipini, gaztiak iraazi / Zaharrak sagastia ipini, gazteak irabazi"*

*"Eskerrak saar urtiai / Eskerrak sagar urteari"*

*"Gure aittonak esan oi zuan urtian bi saar sartu ber ziala / Gure aitonak esan ohi zuen urtean bi sagar sartu behar zirela"*

*"Diru orrekin, asteko pakia ittegenun / Diru horrekin, asteko pakea egiten genuen"*

*Garat bateko Errezildarreraz eta Euskara batuaz esaerak*



Helburu bera dute han bertan eros daitezkeen zinta koloredunak, tontor mistikoan bedeinkatuak egon ala ez, gerrian, paparrean edo kaltetuta dagoen gorputz atalari loturik jartzen direnak.

Ocurre lo mismo con las cintas de colores que se pueden comprar en los pequeños puestos.

# Errezil eta Mitologia / Errezil y la mitología



Mariren errepresentazio grafikoa (Wikipedia).

**Mari**

Mari dugu euskal mitologian jainkosa nagusia, Murumendi mendiko kobazuloan duena bizitokietako bat. Mari, Ama Lurraren irudikapena, izadiaren eta bertako elementu guztien erregina da.

Errezildarrentzat Marik emakume itxura zuen eta zeruan mugitzen zenean sua zerion. Hala errezildarrak maiatzeko Santa Krutz egunez, erreguak eginez Murumendiraino joaten ziren, garai horretan hasten baitziren uzta hondatzen zuten ekaitz beldurgarriak.

La principal diosa de la mitología vasca es Mari, representación de la Madre Tierra y reina de la naturaleza y todos sus elementos. Para la ciudadanía de Errezil Mari tenía forma de mujer y desprendía fuego cuando se movía por el cielo.

Por el día Santa Cruz de mayo, los vecinos y vecinas de Errezil iban a Murumendia, lugar donde habitaba Mari, para rezar y evitar las tormentas que por esa época destruían las cosechas.



Errezilgo mito eta kondairei buruzko informazioa On Joxemiel Barandianek, Ataungo jakintsuak, utzi zigun idazlanetik jaso dugu.



**Gauargi**

Errezilen ongi ezagutzen den beste jeinu bat Gauargi da. Gauez agertzen da argi edo argitasun puntu baten itxurarekin, zoruan, zuhaitzaren batean edo haitz baten gainean.


Hernio (1075m)
Zelatun
Bertsoa
Beste ikur bat Hernio degu
gure mendi garaiena
erromatarren aurkako gudan
gudu zelai izan zena
gure artzaiei uda zein negu
babes ematen diena
Iraileko jaietan berriz
festa lekurik onena
non-nahitik jende ezberdin asko
erakarri ohi duena.
Bertsoaren egilea: Loidi Saletxe